

# JOAN MARI TORREALDAI

## Jakin, Arantzazu, Euskara Batua

Argazkia: Altor Sorreluz



Uztailaren 31n hil zitzaigun Joan Mari Torrealdei, euskal kulturaren alorrean itzal handia zabaldu eta utzi duena: idazlea, ikertzailea, hainbat ekimen eta egitasmoren eragile eta kudeatzailea. Haren heriotzakoan testigu askok aitortu eta gorai-patu ditu beraren lanen ugaria eta ibilbidearen oparoa, alde askotatik begiratuta. Hemen Arantzazuren talaiatik ikusiko dugu Joan Mariaren irudia.

“Jakin, Arantzazukoa” jarri zion berak titulutzat 2007an, *Jakin* aldizkariaren 50. urteurrena burutzean, *Cantabria Franciscana* Arantzazuko fraideen aldizkarian argitaraturiko artikuluari. Eta hona arrazoia, beraren hitzetan: “Jakin eta Arantzazu, Arantzazu eta Jakin,

elkarri loturiko historia bat izan da 50 urte hauetan”. Arantzazuren gorazarrea eta bertako fraideen aldeko aitormena da idatzia, goresmenezkoa eta esker onekoa, Jakin-en aldetik egina.

Urtebete lehenago, *Jakin*-en 50. urteko historia egiten parte hartutakoen talde zabalak ospatua zuen Arantzazun kultur ekitaldi berezia. Oroigarri-plaka ipini zuten orduan Gandiaga Topagunean: “JAKIN. Arantzazun sortu zen 1956an”. Izan ere, Arantzazu aldizkari honen irakurleek ondo dakite, Arantzazuko Teologiako ikasle gazteek sortu zutela, 1956an, *Jakin* aldizkaria, eta Euskaltzaindiak udazken hartan Arantzazun antolaturiko Euskaltzaleen Biltzarrean aurkeztu –13 urteko mutikoa

zen artean Joan Mari –. Arantzazukoa jatorriz eta Arantzazurena (Arantzazuko fraideena) izan zen urte luzetan *Jakin*; baina garai ego-  
kia iristean, kanpokoan esku onetan ipini zuten hori, eskuzabal, euskal kulturgintzaren zerbitzutan.

*Jakin* Arantzazukoa izan bada, Joan Mari Torrealdei bera *Jakin*-ekoa izan da: 41 urtez Aldizkariaren zuzendari, eta 6 urtez Fundazio-ko lehendakari. *Jakin*: aldizkaria eta taldea, biak Arantzazun jaioak, eta gaur arte iraun dutenak. Lan-taldea eta talde-lana: euskarri eta berme erabakigarriak, kultur ekimen eta egitasmo pertsonalak nahiz taldekoak aurre-  
ra eraman eta burutzeko. 2014an, ia hirurogei urteko ondarea talde gazteari eskualda-  
tzen asmatu zuten Joan Marik eta *Jakin* talde “historikoak”, “Euskara–Euskal Kultura–Euskal Herria” goiburua.

*Jakin*, Arantzazukoa, eta Joan Mari bera ere, Arantzazukoa... Bizkaiko Foruan jaio zen 1942an; 11 urte zituen Arantzazuko kolegio-  
ra aldatu zenean –bere tiragoma ere eraman omen zuen ezkutuan, baina zuzendariak kendu egin zion berehala, arma arriskutsua zelakoan edo, atsekabetuta utzirik mutikoa–. Arantzazun eman zituen fraide eta apaizeta-  
rako 13 ikasturteetako (1954–1967) lehen hi-  
rurak eta azken lauak.

Arantzazuri oso atxikia jarraitu zuen bizitza osoan, *Jakin* aldizkariaren eta lagunen bidez, eta bere bihotzez. Bernardo Atxagak, euskal kulturgintzan Joan Marik egindako ibilbidea-  
ren aurpegi biak irudikatzeako, “bi leku” izen-  
datu dizkio Arantzazun: bertako euskal idaz-  
le handien “goi-aretoa”, batetik, eta basilikako frontisaren gainaldea, bestetik, Pietatearen oinetan. Usurbilgo parrokiari izan zen Joan Mariren hileta, abuztuaren 3an; sentiberata-  
sun finez eta irizpide onez, Arantzazuko gi-  
roan ipini gintuzten arduradunek, Oteizaren apostoluen irudiak erakutsiz eta santutegiko kanta ezagunen doinurik ere joaraziz.

Arantzazu, Euskaltzaindia, Euskara Batua: be-  
reizi ezinak dira Euskal Herriaren azken 50 ur-  
teotan. Joan Mari Torrealdei hor erdian egon

da beti, Euskara Batuaren bide-urratzaile. Horren oinarriak ipintzeko Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen Kongresuan, hantxe zen Joan Mari gaztea, orduko argazkian ageri denez. Lehenagotik zebilen, ordea, *Jakin* taldearekin batera, euskararen batasuna bideratzeko ekimenetan. Helburu horrekin 1967an euskal idazleek Baionan ipi-  
nitako irizpideak bat-batean onartu zituen *Jakin* taldeak, eta berehala hasi zen aldiz-  
karia –Joan Mari zuen zuzendaria–, horiek betetzen eta bertako idazleei betearazten; ez ausardia txikiz, eta aurrea hartuz nolabait Euskaltzaindiari. Horrek markaturiko bidea jarraitzen eta erabakitako arauak leial bete-  
tzen saiatu da gerora.

Euskara batuaren ibilbidearen 50. urteurre-  
naren kariatz Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen kongresuaren amaieran, Torrealdei be-  
rak –orduan Euskaltzain Osoa– irakurri zuen Euskara Batuaren aldeko aldarrikapen-agiria.

Joan Mari Torrealdaik euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren alorrean utzitako ondare ugariak haren biografiaren alderdi epikoa erakusten digu; baina Joan Mariren biografiak agerian jarri digu bere alderdi dra-  
matikoa ere: debekuak eta zentsurak, “libros negros” eta “asedios”, atxiloketa, tortura, es-  
petxea, tribunal auzien gurutze-bide luzea. Berak ikertu eta idatzita eman dizkigunen bidez eta berak pertsonalki jasandakoen on-  
dorioz, euskararen eta euskal kulturaren kon-  
trako jazarpen eta eraso askotarikoen testigu indartsu dugu bihurtua: Testigu eta martiri!

Beraz, eta B. Atxagaren irudira itzuliz, irabazia du Joan Marik betirako bere lekua Arantzazu-  
ko horma dolarezkoan; betirako irabazia duen bezala bere lekua Arantzazuko euskal idazle eta kulturgileen “goi-areto” ohorezkoan.

**Paulo Agirrebaltzategi**